



Solokoetxe 17 48006 Bilbo  
Tel.: 944.159.974 Faxe: 944.795.534  
E-mail: 015077aa@hezkuntza.net

# **IKASTETXEKO URTEKO PLANA 2012-2013**

**2012ko urria**

# IKASTETXEKO URTEKO PLANA

## 1. SARRERA

Ikasturte hau hirurteko baten azken urtea da. Beraz ikasturte honetan ziklo bat ixten da. Hirurteko honetan Hiru Urteko Plana 2010-2013 dokumentua ardatz izan dugu. Bidean Elkarbizitza Plana onetsi genuen bi urtetarako. Beraz, ikasturte honetan ere osatuko dugu eta ebaluatu eta gero beste Elkarbizitza Plan bat erdietsi egin beharko.

Ikastetxeiko Urteko Plan hau aurreko dokumentuak erreferente izango ditu. Horiek eta aurreko ikasturte bukaeran bai klaustroan, bai Eskola Kontseiluan onetsi genuen 11-12 Ikasturteko Oroitza.

## 1. HELBURUAK

<b>1 HELBURUA: Programazio luzerako unitate didaktikoaren eredu bat koordinatzea. (Hiru Urteko Plana: 2.1 eta 2.2 jarduerak. Elkarbizitza Pana: 4. helburua.)</b>			
<b>Jarduera edo ataza</b>	<b>Inplikatuak</b>	<b>Denbora</b>	<b>Lorpen adierazleak</b>
1. Prestakuntza ikastaroa egin: 4 saio.	Klaustroa.	Urria-Abendua	Prestakuntza ikastaroa burutu da.
2. Pedagogia Batzordean erreferenteko eredu bat adostu.	Mintegiak Pedagogia Batzordea.	Urria-Abendua	Eredu baten inguruan lan egin da.
3. Eredu horretan oinarrituta mintegietan unitate didaktiko bat garatu.	Mintegiak	Urria-Abendua	Unitate didaktikoa elaboratu eta zuzendu da.

<b>2 HELBURUA: Elkarbizitzan hainbat foke eta estrategiak adostea eta hori kontuan hartuta Ikastetxeko AJA osatzea eta onestea. (Hiru Urteko Plana: 3.4 eta 3.5 jarduerak Elkarbizitza Plana: 1. eta 2. helburuak.)</b>			
<b>Jarduera edo ataza</b>	<b>Inplikatuak</b>	<b>Denbora</b>	<b>Lorpen adierazleak</b>
1. Hausnarketa prozesua abian jarri Elkarbizitza Batzordeak bultzatuta eta koordinatuta. (Neurri zuzentzaileen multzo bat hausnartu eta adostu aniztasun handiagoa eta orientabide hezitzaileagoa emateko "Jokabide Desegokien" txostenei).	Elkarbizitza Batzordea Mintegiak Klaustroa Gurasoen Elkarte Delegatuen Batzordea	Urtarrila-Otsaila	Klaustroan eta Eskola Kontseiluan dokumentuari onespina ematen zaio.
2. Gure AJA osatzea eta onetsi.	Elkarbizitza Batzordea Mintegiak Klaustroa Gurasoen Elkarte Delegatuen Batzordea	Otsaila-Maiatza	Klaustroan eta Eskola Kontseiluan AJA onetsi da.

**3 HELBURUA: Burutu barik aurreko ikasturtean geratu ziren hausnarketa prozesuak bukatzea (Hiru Urteko Plana 2.2 eta 3.2 eta Elkarbizitza Plana 3.2, 4.1 eta 4.2)**

<b>Jarduera edo ataza</b>	<b>Inplikatuak</b>	<b>Denbora</b>	<b>Lorpen adierazleak</b>
1. Baloreen markoa adostu.	Elkarbizitza Batzordea Klaustroa Eskola Kontseilua	Abendua-Maiatza	Klaustroan eta Eskola Kontseiluan baloreen markoa onetsi da.
2. Ikaste-irakastearen gure oinarri metodologikoak eta aniztasunari arretaren inguruko konpromisoak formulatu.	Pedagogia Batzordea Klaustroa Eskola Kontseilua	Abendua-Maiatza	Klaustroan dokumentuak onetsi dira eta Eskola Kontseiluan informatzen da.

## 2. IRAKASKUNTZA JARDUEREN PROGRAMA

### A) Ohiko jardueren programa

#### Egutegia

2012-2012 ikasturteko egutegia honako hau izango da:

IRAILA							URRIA							AZAROA									
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I			
					1	2	1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4			
3	4	5	6	7	8	9	8	9	10	11	12	13	14	5	6	7	8	9	10	11			
10	11	12	13	14	15	16	15	16	17	18	19	20	21	12	13	14	15	16	17	18			
17	18	19	20	21	22	23	22	23	24	25	26	27	28	19	20	21	22	23	24	25			
24	25	26	27	28	29	30	29	30	31					26	27	28	29	30					
17 egun							21 egun							21 egun									
6an hasiera							17an 1. AURREBALUAKETA							27-28an 1. EBALUAKETA									
							12 eta 25 jai egunak							1a jai eguna									
ABENDUA							URTARRILA							OTSAILA									
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I			
					1	2		1	2	3	4	5	6						1	2	3		
3	4	5	6	7	8	9	7	8	9	10	11	12	13	4	5	6	7	8	9	10			
10	11	12	13	14	15	16	14	15	16	17	18	19	20	11	12	13	14	15	16	17			
17	18	19	20	21	22	23	21	22	23	24	25	26	27	18	19	20	21	22	23	24			
24	25	26	27	28	29	30	28	29	30	31				25	26	27	28						
31																							
13 egun							19 egun							15 egun									
6-7 eta 21etik-6ra jai egunak							23an 2. AURREBALUAKETA							11tik 15ra jai egunak									
MARTXOA							APIRILA							MAIATZA									
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I			
					1	2	3		1	2	3	4	5	6	7				1	2	3	4	5
4	5	6	7	8	9	10	8	9	10	11	12	13	14	6	7	8	9	10	11	12			
11	12	13	14	15	16	17	15	16	17	18	19	20	21	13	14	15	16	17	18	19			
18	19	20	21	22	23	24	22	23	24	25	26	27	28	20	21	22	23	24	25	26			
25	26	27	28	29	30	31	29	30						27	28	29	30	31					
16 egun							17 egun							22 egun									
12-13an 2. EBALUAKETA														8an 3. AURREBALUAKETA									
25etik-7ra Aste Santua														1a jai eguna									
EKAINA																							
A	A	A	O	O	L	I																	
					1	2																	
3	4	5	6	7	8	9																	
10	11	12	13	14	15	16																	
17	18	19	20	21	22	23																	
24	25	26	27	28	29	30																	
14 egun																							
Ekainak 20: azken eguna																							
18-19an: 3. Ebaluaketa bilerak																							
24-25ean: Ez ohiko probak.																							
26an: ez-ohiko EBALUAKETA + NOTAK																							
26tik-28ra: Erreklamazio epea / 28an azken sinadura																							

#### 175 egun:

Abenduak zubia dago.

2 aste Gabonak: abenduaren 22tik-urtarrilaren 6ra

Aste Zuria: otasilaren 11tik-7ra

2 aste Aste Santua: martxoaren 25etik - apirilaren 7ra

## Familiei egin beharreko jakinarazpenak

Egutegian ikus dezakegunez, mailaz mailako irakasleak ikasturtean zehar sei aldiz bilduko dira aztertzeko talde bakoitzaren egoera eta ikasleen banan banako bilakaera. Horren ondorioz 6 idatzizko txosten gauzatuko dira eta tutoreen bidez gurasoei helaraziko zaizkie.

## Ordutegia

Ordutegiari dagokionean, aurten ere aurreko ordutegiarekin jarraituko dugu, hau da, trinkoa 3. eta 4. mailan dauden ikasleentzat eta banandua 1. eta 2. maila daudenentzat. Irailean eta Ekainean ordutegia trinkoa izango da ikasle guztiontzat.

<b>1. ZIKLOAN</b> Astlehenean, Asteartean, Ostegunean		<b>2. ZIKLOAN</b> Astlehenean, Asteartean, Ostegunean	
1.SAIOA	08.30.-09.25.	1.SAIOA	08.30.-09.25.
2.SAIOA	09.25.-10.20.	2.SAIOA	09.25.-10.20.
ERREKREOA	10.20.-10.50.	3.SAIOA	10.20.-11.15.
3.SAIOA	10.50.-11.45.	ERREKREOA	11.15.-11.45.
4.SAIOA	11.45.-12.40.	4.SAIOA	11.45.-12.40.
5.SAIOA	14.25.-15.20.	5.SAIOA	12.40.-13.35.
6.SAIOA	15.20.-16.15.	6.SAIOA	13.35.-14.30.

## Karguen banaketa

- ZUZENDARIA: GONZALO LARRUZZEA
- IKASKETA BURUA: NEREA SARASKETA
- IDAZKARIA: MAITE OIARTZABAL
- IKT ARDURADUNA: IÑAKI ELORRIAGA /AGATE IKAZURIAGOITIA
- HNP ARDURADUNA: MARIBEL SANCHEZ/ANTONIO CASTILLO.
- AGENDA 21 ARDURADUNA: CARMEN CARCEDO
- JANTOKIKO ARDURADUNA: ANGEL LUZURIAGA
- 

## Mintegi buruak hauexek:

- MATEMATIKA: CARMEN CARCEDO
- ZIENTZIAK: SUSI VIZAN
- TEKNO/PLASTIKA: AGATE IKAZURIAGAGOITIA
- PLASTIKA: PATXI MARTIN
- ORIENTAZIOA: AITOR URIETA
- GIZARTE: ANTONIO CASTILLO
- EUSKARA: SEBE SANCHEZ
- INGELESA: ANGELA CALZADA
- GAZTELANIA: INMACULADA FERNÁNDEZ

**Eta tutoreak beheko hauek:**

- 1. A: ESTIBALIZ ARGÜESO
- 1.B: MARIJE JAUREGI
- 1.C: ALICIA CALLE
- 2.A: MIREN TOUCET
- 2.B: MARI JOSE OLIVARES
- 2.C: KONTXI SAENZ
- 3.A: SUZI VIZAN
- 3.B: AMAIA ALBIZURI.
- 3.C: JOSUNE AURREKOETXEA.
- 4. CD: TERESA LAZARO/ELENA BEOBIDE.
- 4. A: INMA FERNÁNDEZ
- 4. B: CARMEN MONTÁNCHÉZ
- 4. C: MÓNICA MARTÍN

**Orientatzailea:**

- AITOR URIETA

**Pedagogia Terapeutika:**

- BRIGITTE PÉREZ
- KARIOKA BACIGALUPE (AMAIA ETXEBARRIA)

**Ikasleen taldekatzea**

Ikasleen kopurua 293koa da horrela banatua:

1 maila	A	26
	B	26
	C	26
2 maila	A	24
	B	20
	C	22
3 maila	A	26
	B	25
	C	26
4 maila	A	20
	B	20
	C	19
	CD	13

Bigarren Mailako kopuruan sartuta ditugu bi ikasle, Programa Osagarrian daudenak Peñascal Fundazioak Boluetan duen ikastetxean. Orientazio mintegitik jarraipena egiten zaienei, eta irakasgai batzuentzat elkartzen dira gure irakasleekin.

Taldeen osaketa heterogeneotasunari begira egin dira. Irizpide hori da nagusia lehenengo mailako taldeak egiteko unean. Hori lortzeko ondoko elementu hauek hartzen dira:

Neska eta mutikoen arteko parekotasuna.

Guren ibilbidean dauden bi lehen hezkuntza ikastetxeen arteko parekotasuna.

Portaera arazoak lehen mailan eman dituztenen banaketa taldean artean.

Maila akademikoan arazoak izan dituztenen arteko banaketa taldeen artean.

### **Orientazioa eta Tutoretza Plana**

Zuzendaritza taldeak tutoreen ordutegiak egiterakoan astean ordu bat kontenplatu du koordinaketa bilerak egiteko. Hau dela eta, maila desberdinetako tutore guztiek ordu bera libre izango dute koordinaketa hau martxan jartzeko eta aurrera eraman ahal izateko:

1.mailako tutoreak + orientatzailea ---- osteguneko 4. saioan.

2.mailako tutoreak + orientatzailea ---- astelehenero 3. saioan.

3.mailako tutoreak + orientatzailea ---- asteazkeneko 6. saioan.

4.mailako tutoreak + orientatzailea ---- astearteko 1. saioan.

Esan bezala, koordinaketa bilera hauen arduraduna orientatzailea izango da, eta Orientabide gelan egingo dira.

Urtero bezala, pasa den ikasturtearen amaieran ikasleek eta tutoreek beraiek tutoretza saioen ebaluazioa egin zuten. Orientatzaileak, balorapen horiek kontuan hartuta, eta bere gogoeta propioetatik abiatuta, 11/12 ikasturteko memorian 12/13 ikasturterako balio behar zuten proposamenak jaso zituen (Tutorekiko Bileren atalaren barruan, egindako lanaz aipaturiko aspektuak):

#### **Balorapena**

(...) Pasa den ikasturtean aipatzen zen zelan tutoreek gero eta arazo handiagoak topatzen dituzten tutoretza saioak aurrera ateratzeko, eta aurten ere zailtasunak agertu dira. Planteamendu berriari eusten badiogu ere, bilera hauei dagokienez, datorren ikasturtean saiatuko gara tutoreei pautak zehatzagoak ematen ikasleekiko saioak aurrera eramateko.

#### **Proposamenak**

(...) aurten garrantzi berezia eman nahi izan diogu talde dinamikan eragiteari ildo zehatz batetik: harremanak hobetzeko etengabeko hausnarketa egitea. Horretarako, gidoi bat jarraituz, eta baldintza batzuk betez, talde asanbladak gure tutoretza jardueren ardatza bihurtzea adostu genuen tutore bileretan. Aurtengo esperientziak balio izan digu ikusteko asmo hori gauzatzea ez zela



hain erraza izango. Lehen aipatu dugun denbora falta ez da arazorik handiena izan. Orokorrean balorapena txarra izan ez bada ere, tutoreek eskatu dute baliabide gehiago edukitzea, eta era zehatzago batean saio mota hau egituratzea. Datorren ikasturteari begira hau helburu nagusienetarikoa izango da.

Hausnarketa hauetatik, eta gure markoa zehazteko lantzen ari garen akordioetatik abiatuz, tutoretza saioen sekuentzia zehatzak lotzen jarraituko dugu. Markoari dagokionez, "Baloreak" dokumentuan aipatzen diren guztiak kontuan hartzen baditugu ere, isla zuzen eta argiagoa edukiko dutenak hauek dira: errespetua, hezkidetzeta eta elkarrizketa, jarduera zehatzen bitartez landuko direlarik. Beste aldetik, tutoretza saioek paper garrantzitsua jokatu behar dute Elkarbizitza Planean azaltzen den bigarren helburua gauzatzearen ildotik: "Hainbat estrategia garatu, elkarrizketan eta errespetuan oinarritzen diren harremanak, bitartekaritza, funtzio eta ardurak ezberdinen onarpena eta pertsonen arteko zaintza sustatzeko"

Pasa den ikasturteko planteamendu orokorra aipaturiko ildotik zihoan ere bai. Aurten sakondu, eta, batez ere, zehaztu nahi dugu. Honen ondorioz, helburu espezifiko bat izango da tutoreentzat egingarriak diren saio sekuentziak maila guztietan zehaztea. Saio sekuentzia horien barruan Talde Asanbladak egiteko prozedurak eta teknikei espazio berezia emango diegu.

Tutoretzan lantzen diren esparruei dagokienez, orain arte aurreko ikasturteetako markoak balio du oraindik, eta, beraz, lehenetsuna emango diogula hirugarren atalari (Taldekideen arteko harremanak / Elkarbizitza / Taldearen arazoak aztertzea). Uste dugu posible izango dela beste atalen barruan landu nahi den gehiena geletako "asanblada" horien bitartez aurrera eramatea. Hala ere, puntualki saio espezifikoak egingo ditugu zer edo zertan eragin behar dugula ikusten dugun neurrian (ikas ohiturak, orientazioa...). Aipagarria da aurten era argiago batean, eta maila guztietan landu nahi dugun gai bat generoarekin lotutakoa dela. Hiru ikuspegi desberdinetatik ekingo diogu: emakumeen kontrako biolentziaren prebentzioa, etxeko lanen banaketa, eta orientazio akademikoa hezkidetzaren ikuspegitik. Edozein kasutan, helburu nagusia mantendu egiten dugu: "Tutorearen helburua ikasle bakoitza zein taldearen egoera ezagutzea eta hobetzea da. Tutoretza saioak horretarako daukan tresnarik nagusia dira"

(Hemen jaso da, batez ere, tutoreekiko atala. Plan osoa zehetasun gehiagoz ikusteko jo ezazue zuzenean Orientazioa eta Tutoretza Urteko Planera).

### **Aniztasunari arreta emateko berriazko proiektuak.**

Aniztasunari arreta emateko hiru programa ditugu aipagarrienak:

Bi urtetarako Curriculum Desberdineko Programa 13 ikaslez osatuta dago. Aurten programa bigarren urtea da. Iazkoarekin alderatuta 3 ikasle gehiago

ditugu: bat Luis Briñas institututik etorri dena, beste bat Kirikiño ikastolatik eta beste bat gure ikasle bat DC azken urtean egitea ekaini zaiona.

Bestalde Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa berriz onetsi digu Administrazioak. 1. mailako 7 ikasleei zuzenduta dago, 1 B eta 1 C taldeetan integratuak inklusibitateari begira, Administrazioak bere jarraibideetan adierazten duen moduan. Horrek dakar gela berean eta elkarrekin lan egiten duten bi irakasleren zeregin koordinatua hainbat irakasgaitan. Baina adierazi behar dugu eman diguten ordu kredituan murrizketa bat egon dela eta iaz norbanako tutoretza egiteko dedikatzen genituen 6 orduak, aurten ditugula. Beraz 1. mailan

Azkenik aipatzekoa da ikasturte honetan ere PROA Laguntza Programa garatuko dugula. 1. eta 2. mailako ikasleentzat zuzenduta dago eta eguerdietan saioak egingo dira. Guztira 36 ikaslek parte hartuko dute (12 kideko 3 talde) hiru begirale gazterekin lagunduta. Baliteke ikasturtean zehar laugarren taldea sortzea. Helburuak dira ikasleei etxerako lanak egiten laguntzea, agenda kontrolatzea eta ikasketa teknikoak hobetzea. Labur esanda eskola arrakasta lortzeko beste tresna bat. Nahiz eta Programa begirale gazteekin aurrera eramana, PROA institutuko proiektua da, ez kanpoko laguntza. Beraz ezinbestekoa da irakasle guztien koordinazioa eta inplikazioa. Nerea Sarasketa koordinatzailea izango da.

### **Heziketa Premia Bereziak**

Heziketa Premia Berezien arloan hamaika ikasle ditugu. Ikasle horietatik bi DBH 1ekoak dira, lau DBH 2koak dira, eta beste bost hirugarren mailakoak. Behar duten arreta motaren arabera sei dira Norbanako Egokitzapen Globala dutenak, hiru arlokoa, eta bi sarbidekoa. Ikasle hauetaz aparte badago beste kasu bat lehenengo mailan, Heziketa Premia Berezien zerrendan ez egon arren, berariazko premiak dituena bai inguru kaltetukoa izateagatik, bai bere maila akademikoa besteekiko oso atzeratuta duelako. Honi ere arreta berezia ematen zaio bi ordutan. Hau guztia aurrera emateko plantilan bi Pedagogia Terapeutikoko irasleak ditugu.

Egokitzapenak egiteko unean elkar lana ezinbestekoa ikusten dugu arloetako irakasle eta Pedagogia Terapeutikoko irakasleen artean. Elkar lan hori behar diren materialak garatzeko eta baliabideak aukeratzeko edota sortzeko ere izan behar da. Baita ikasturte amaierarako planifikatutakoa aztertzeko eta balorapena egiteko ere.

(Zehetasun gehiago: Ikusi Heziketa Premia Berezien Urteko Plana).

**B)Jarduera osagarrien programa.**

Ikasturte honetarako jarduera osagarrien aurreikuspena honako hau da:

<b>MINTEGIA/ PROGRAMA</b>	<b>NORA/NORTZUEKIN</b>	<b>DATAK</b>	<b>ARDURADUNAK</b>
Agenda XXI	Kooperera Merkatura. 1. maila	Zehaztu gabe	Karmele/Susi/ Marije/Miren
Agenda XXI	Autobus ibiltarian tailerra: "Tresna elektronikoen birziklapena". 1. maila	Urriaren 8an	Karmele/Susi/ Marije/Miren
Agenda XXI	Aresketamendi parkera 2. maila	Martxoaren 20an	Karmele/Susi/ Marije/Miren
Agenda XXI	Kontsumo gelako tailerrak: "Garraio publikoa eta kontsumo iraunkorra" 3. maila	Urtarrilaren 28, 29 eta 30ean	Karmele/Susi/ Marije/Miren
Gaztelera	La vuelta al mundo en 80 días. 1. eta 2. maila	Urtarrilaren 24an	Mónica/Leire
Gaztelera	Entremeses 3. maila.	Urtarrilaren 25ean	Leire/Inma
Gaztelera	Yerma 4. maila	Martxoaren 6an	Mónica/Inma
Gaztelera	Latin. Antzerkia. 4. maila	Martxoaren 19an	Maribel/Xabi
Gaztelera	Taller de Literatura y cine. Lugares de la infancia de Unamuno.	Urriaren 8an	Mónica/Leire
Euskara	Bidebarrietako liburutegira hainbat idazlerekin solasaldiak edukitzeko 3. maila	Zehaztu gabe	Amaia Albizuri
Euskara	Euskararen etxera 2. maila	Otsailean	Maribel Sánchez
Euskara	"Karamuk" filma ikustera 1 maila	Urtarrilaren 11an	Maribel Sánchez
Euskara	Bertso saioetara inguruko ikastetxeetan	Maiatzean	Maribel Sánchez

Gizarte	Enkarterri museoa eta Balmasedatik bisita 1. maila	Otsailaren 26 eta 28an	Alicia
Gizarte	Enkarterri museoa eta Pobal burdinola 2. maila	Azaroaren, 30an	Zutoia
Gizarte	Irun-Hendaia-Donibane Lohitzune. 3. maila.	Ekainaren, 14	Carmen/Antonio
Gizarte	Baiona-Biarritz 4. maila	Ekainaren, 20	Carmen/Antonio
Gizarte	Arte tailerra: Berreginen Museoa 2. maila	Udaberrian	Alicia
Gizarte	Kultur Klasikoa: Berreginen Museoa 3. maila	Udaberrian	Zutoia
Ingelera	Arte Ederretako Museoa 3. maila.	Maiatzean	Ángela/Nerea /Natalia
Ingelera	Antzerkia. Institutuko aretoan. Maila guztiak	Abenduaren 3 eta Urtarrilaren 9an	Ángela
Frantsesa	Trukaketa Bordeleko ikastetxe batekin 4. mailako frantseseakoak	Abenduaren 5-11	Miren Etxebarria
Frantsesa	Iparraldera 1. eta 2. maila	Martxoaren, 14	Miren Etxebarria
Natura	Peñas Negras. "Ingurua ezagutzea" 2. maila	Abenduaren, 10 eta 13an	Susi
Natura	Sopelako hondartzara "Mareen arteko ekosistema". 2. maila	Urriaren 30ean	Marije

### 3. ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK

Errondagane Guraso Elkarteak bultzatuta eskolaz kanpoko jardueren programa hau ikasleei eskainiko zaie:

Jarduera	Noiz
Antzerkia	Asteazkenetan (15:15 - 16:45)

Dantza	Astearteetan (16:15-17:45)
Saskibaloia 1. eta 2.	Astelehenetan (16:15-17:45) eta asteazkenetan (17:45-18:15)
Saskibaloia 3. eta 4.	Astelehenetan (17:45-19:15) eta asteazkenetan (18:15-19:15)
Gitarra	Astelehenetan (12:40 -13:40)
Bertsolaritza	Astelehenetan (13,30 a 14,30)

Ikasturtearen erdian iaz arrakastatsua izan zen norbanako defentsarako ikastaroa berriz eskainiko da.

Bestalde Erondagane elkarteari esker liburutegia zabalik dugu jardunaldi banandua ditugun egunetan (12:40-14:10).

### 3. IKASTETXEKO BESTE PROIEKTU ETA ZERBITZUAK

#### **Euskara Normalkuntzarako Plana.**

Gure ikastetxean 2009-10 ikasturtean berriro genuen lau urterako proiektua. Hortaz HNP horren hirugarren ikasturtean sartzeko gara. Duela bi urte hasitako bideari jarraitu behar diogu aurten ere. Horretarako ikastetxeak berak sortutako baliabideak zein Ulibarrik eskaintzen dizkigun tresnak eta materialak erabiliko ditugu.

HNP-a ezin da izan ekitaldi zerrenda bat. Gure helburua eragile guztiak elkar lanean jartzea da. Horretarako planaren eraginkortasuna bideratzeko asmoarekin eragile guztiei galdetegi bat pasatu eta emaitzekin aurre ikusten ditugun aldaketak bideratuko ditugu. Hala ere ikasleekin orain arte eraginkorrak izan diren jarduerak burutzen jarraituko ditugu . Hori dela eta zer egingo dugu?

#### 1. Euskara Batzordea antolatu.

##### A) Irakasleekin:

Talde osatu eta bete beharrak banatu. Plana birplanteatu eta berrantolatu gaur eguneko gure ikastetxeko ikasleriari egokituz.

##### B) Ikasleekin:

Euskara suspertzeko ahaleginetan neska-mutilak protagonista zuzenak izan daitezten, maila eta talde guztietatik norbait animatu eta konprometitu. Euskararen alde antolatzen diren inizatiba guztietan protagonista zuzenak bihurtzea da helburua. Horretarako urte osoko bileren egutegia aurkeztuko zaie eta bileretarako gai ordena zehatza aurkeztu. Talde honen betebeharrak hauek izango dira: Hilabete bakoitzeko astearte jakin batean bildu (zikloka); ekimen ezberdinei buruz iritzia eman; euskaraz egiteko inizatibak asmatu; ekimenak adierazteko kartelak egin; "Euskararen Txokoa" zaindu (arduradunak) eta noizbehinka, gelaz gela beste neska-mutilei informatu eta ekimenetan parte hartzera animatu.

Jarduera ezberdinak bultzatu:

Euskararen Eguna; Euskararen Astea (martxoak 18 – 22); Bertso Eskola antolatu; Maitasun gutun lehiaketa; Bertso eta Komiki Lehiaketa antolatu; “Berbaixu” aldizkaria; bloga eta Irratia: Solokoetxe 2.0.; Eusko Jaurlaritzak ahozkotasuna lantzeko bultzatzen duen Nolega programan parte hartu.

Irakasle eta gainontzeko hezitzaileen konpromisoak:

Irakasle zein beste hezitzaile guztien aldetik, jolas ordu eta pasabideetan eta bereziki klaseetan neska-mutilengan “euskararen aldeko” konpromisoa hartzen animatu beharko dugu. Eta klase orduetan, euskaraz mintzatzera “bultzatu” behar ditugu eta arlo guztietako klasetan kontuan izango da euskaraz jardutea. Ahozkotasuna hobeto lantzeko aurreko urteetan hartutako irizpideak praktikan jarriaz.

Euakararen Eguna eta Euskararen Astea dela eta aurrez aurretik zuzendaritzaren oniritziz antolaturiko egitasmoa gauzatzen lagundu.

Gurasoak:

Ikasturte hasieran, Gurasoen elkarteari egitasmo honen berri eman eta euskararekiko familien jarrera indartzeko zer egin dezakegun hausnarketa bideratuko du HNTak eta ikasturte hasierako guraso bileretan Euskararen Normalkuntzarako egitasmoaren berri eman eta ikastetxe honetan euskarari ematen diogun garrantzia azpimarratu.

Martxan jarria dugun gurasoen Euskara Batzordea zabaldu eta sustatu. Euskararen Eguna eta Astea antolatzeko laguntza eta parte-hartzea eskatu, urtean zehar burutu litezkeen ekintzetan haien parte hartze aktiboa bermatuz. Euskararen Eguna ospatzeko gurasoekin zerbait berezia antolatu.

### **Eskolako Agenda 21**

2012-2013 ikasturtean gure ikastetxea Eskolako Agenda 21 proiektuan zazpigarrenez sartuko da: Hezkuntza-komunitate guztia Ingurumenaren aldeko konpromisoa berretsiz, naturarekiko ohitura egokiak lortzea izango da proiektu honen helbururik nagusia .

Orain dela sei urte proiektu hau martxan jarri genuen eta ikasturte hauetan hainbat aspektu landu ditugu:

- hondakinen banaketa
- paper, energia eta ur kontsumoaren murrizketa
- paper berziklatuaren erabilera
- aparatu elektronikoaren kontsumo eta erabilera
- elikaduraren ohitura egokiak.

Joan den ikasturtean “aztarna ekologikoa” gaian aritu ginen eta nagusiki jorratuko genuen aspektua gure aztarna ekologikoa gutxitzea izan zen.

Aurten “Gure aztarna ekologikoa murrizten: mugikortasuna” landuko dugu.

Ekimen honekin jarraitzeko asmoz, eta proiektua aurrera eramateko irakasle talde batek ardura hartu du bere gain, baina konpromisoa klaustroarena eta Eskola Kontseiluarena da, hau da, Hezkuntza-komunitatearena hain zuzen, nahiz eta Ingurumen Batzordeak lana bultzatu eta bideratu.

Proiektua gauzatzeko (partaidetza, kudeaketa eta curriculum) C.E.I.D.A.-ren laguntza izango dugu, horretarako proiektuaren arduraduna hilean behin Bilboko beste ikastetxeko koordinatzaileekin bilduko da. Baliabide materialak eskuratzeko aurreko urteetan bezala Ingurumen Saitetik diru-laguntza jaso dugu. Aurten 1 576 €koa izan da.

Ingurumen Batzordearen helburu nagusien artean hauek izango lirateke:

- Ingurumenaren aldeko egiturak indartzea: Txoko Berdea, Ingurumen Batzordea, Gelako Puntu berdea, Talde Berdeak, Agenda 21ko laguntzaileak, Birziklapen Arduradunak, e.a.
- Hondakinen sailkapenaren hobekuntzan jarraitzea Irakasle, Garbitzaileen eta beste langileen inplikazioaren laguntzaz
- Paperaren erabilpen egokia bultzatzea: kontsumoaren murrizketa, paper birziklatuaren erabilera zabala, eguneroko ohitura egokiak sendotu...
- Ura eta energia aurrezteko ekimenak zabaltzea: ikastetxean ditugun energi-plaken funtzionamendu eta abantailak, ura eta energia murriztearen aldeko ekimenak...
- Kontsumo arduratsua eta elikadura osasuntsua bultzatzea “Hamaiketako ekologikoa”ren ekintzarekin jarraituz...
- Mugikortasun jasangarria aztertu eta bultzatzea.

(Zehetasun handiago: Ikusi Agenda 21eko Urteko Plana)

## **IKT**

Ikasturte honetarako planteatutako helburuak hauexek dira:

1. Ikastetxeko administrazioaren kudeaketa hobetzea eta bertan laguntzea.
2. Gela barruan tresna informatikoak erabiltzeko irakasleen gaitasun maila hobetzea.
3. Ikastetxean ingurune birtuala aukeratu eta martxan jartzea.
4. Ikastetxeko blog eta web orriari jarraipena ematea.
5. Ikastetxeko partaideen artean komunikazioa izateko weba erabiltzea.
6. Eusko Jaurlaritzako plataformaren baliabide berriak aztertzea.

(Zehetasun handiago: Ikusi IKTko Urteko Plana)

## **Eskola 2.0**

Aurreko ikasturte hasieran bagenekien Eskola 2.0 Programa indarrean jarriko zela Bigarren Hezkuntza, baina zeharo desinformaturik gaude. Orain, behintzat, arbelak eta ordenagailu txikiak instalatuta dugu. Ikasturte honen helburua izan behar da dugun tresneriari errendimendu handiago ateratzea.

### **“Serantes” Proiektua**

Urtarriletik aurrera ikasturte honetan ere 1. eta 2. mailako ikasleentzat astean behin futbolari alternatiba abaragarriagoak eskaintzen diren asteko bi edo hiru egunetan: jokoak, beste kirol motak, mahai jolasak, liburutegia... planteatzen jarraituko dugu, patioko guztion erabilera (neskena ere bai) erraztuz. Eragintza enpresarekin jarraituko dugu lan egiten eta iaz monitoreekin sortu ziren diziplina arazoak gainditzeko asmotan. Bestalde ez dugu baztertzen 3. eta 4. Mailako ikasleentzat beste alternatibak planteatzea.

### **“Elkar-Ikasketa” Proiektua**

Askotan geure buruari galdetu diogun ea PROA Proiektuaren antzeko zerbait ez ote ginatekeen antolatzekeo gai izango. Horregatik "Elkar Ikasketa" proiektua bultzatzea erabaki dugu, ostegunetarako astelehenetik ostegunera arte estudiorako ordu bateko espazioa monitore batek lagunduta. Proiektu honek bi ezaugarri bultzatu nahi ditu:

Ikasleen autonomia garatzen saiatuko da, hau da, ikasleek antolatuko dute ataza eta planifikatuko dute denbora euren beharrezan arabera. Eta berdinen arteko ikasketa eta elkartasuna. Berdinen arteko laguntza ikasketarako garrantzizko iturri bat da, elkartasuna pizten du eta eskola arrakastari dimentsio kolektiboa ematen dio.

### **“Arrakasta” Proiektua**

Proiektu 1. mailako ikasleentzat pentsatuta dago. Bi baldintzak bete behar dira: eskola zailtasunak eta atzerapenak eduki eta etxeko laguntzak ez topatzea ikasketei jarraipena egiteko. Institutua zabalik egongo da arratsaldeetan (astelehenetik ostegunera arte) monitore batekin lan egiteko ondoko dimentsio hauek: lan ohituren sorrera eta lanaren antolakuntza; ikasteko estrategia egokiak erabiltzea; autoirudia eta norberaren iguripenekin lan egitea; familiekin koordinazioa eta euren inplikazioa; alde ludikoak eta afektiboak. Proiektua PROAko osagarri moduan planteatzen da eta ikasleen kopurua txikia izango da.

### **Jantokia**

Urtero lez, Ikastetxeak jantokiaren zerbitzua eskainiko du, bi txandatan, ikasleen ordutegiaren arabera: 1)12,40-14,25 (astelehenetan, asteartetan eta ostegunetan) 1. Eta 2. mailako ikasleentzat eta 14,30etatik aurrera 3. eta 4. mailako ikasleentzat. Asteazkenetan eta ostiraletan, guztiontzat ordutegi



trinkoa denez maila guztietako ikasleak 14,30etan dute jantokia. Ordu-tegi banandua duten egunetan eguerdiko tartearen iraupena ordubete eta 45 minutukoa izango da, Bizkaiko Ordezkariek onartuta. Anjel Luzuriagak jantokiko arduraduna jarraituko du izaten.

#### 4. IRAKASLEENTZAKO PRESTAKUNTZA JARDUERAK

##### Prestakuntza Plana

Aurten ez gara apuntatu Hezkuntza Sailak egiten duen deialdia ikastetxeetan prestakuntza egitekoa. Arrazoia izan bi konpromiso lotuta genituelako iaztik: batetik Pello Aramendirekin programazio luzeak egiten laguntza emateko eta bestetik Hezkuntza Sailak aginduta Teknologia Berriei buruzko prestakuntza: Aurten falta zaigun erdia (15 ordu) egin beharra. Bi bloke horiei, mintegi batzuk eskatuta, bi saio dedikatuko ditugu elkarbizitzaren inguruan hainbat irizpide eta estrategia adosteko. Hori guztiarekin gure ikastetxeko prestakuntza plana horrela geratzen da.

GAIA	NOIZ	ORDU KOPURUA	HIZLARIA
Programazio luzeetarako unidate didaktoaren disenua	Urria-Azaroa	4 saio = 10 ordu	Pello Aramendi
Elkarbizitza: estrategiak eta fokeak.	Urtarrilean	2 saio = 5 ordu	Gure artean
IKTei buruzko prestakuntza osatzea: Moodle, Google Apps, Arbel Digitala eta ordenagailu txikiak.	Otsaila-Maiatza	6 saio = 15 ordu	Ramón de Domingo

#### 5. BESTE JARDUERA BATZUK

##### Ebaluazioa diagnostikoa.

Ikasturte honetan berriz ebaluazio diagnostikoaren probak egin beharko dituzte 2. mailako ikasleek. Emaitzak aztertuta, Hobekuntza Plan berri bati ekingo diogu.

##### Solokoetxeko Auzokideen Elkartearekin hitzarmena

Eskola Kontseiluak berretsiz gero, institutua akordio batera heldu da Solokoetxe Auzokideen Elkartearekin. Horren bidez, liburutegia zabalik egongo da bai jolastorduetan, bai arratsaldeetan 16,15-18,30 astelehen, astearte eta ostegunetan. Gainera Elkartearen laguntzarekin Gabonetarako liburutegian ditugun materialak ABIES programan sartuta egongo dira.

## **6. EKONOMIA KUDEAKETARAKO PLANA**

Ikastetxean ohikoa denez, kontuak urtean hiru aldiz aztertzen dira Eskola Kontseiluan: Balantze eta aurrekontuaren aurkezpena kurtso naturalaren hasieran, eta ertaineko balantzeak, ekainean eta abenduan, Ekonomia Batzordean ixten direnak. Ohitura hauei heltzeaz aparte, ikasturte honetan liburutegia informatikoki hornitu nahi dugu eta horretarako sareko beste puntu batzuk beharko dira eta ordenagailu gehiago jartzea. Helburu hori erdiesteko hainbat arazo tekniko gainditu beharko ditugu eta aurrekontu sail bat dedikatuko dugu.

**Klaustroan (25 boto alde, 1 zurian) eta Eskola Kontseiluan aho batez onetsi zen 2012ko azaroaren 7an.**